



OÑATIKO GAZTETXEA

ARGIA gazteena ere bada



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Oñatiko Antixena Gaztetxera sartu eta hantxe ikusi dut, barraren gainean, ARGIAren azken alea. Mastrakatu samarra dago eta poza eman dit, norbait aldizkariarekin jolasean ibilia izango zen agian eta horrek desitxuratuko zuen pixka bat, baina hainbat eskutatik pasatako itxura zuen, erabilia. Begirada pixka bat urrundu eta orduantxe lagun batek mahaitik jaiki eta *Berria* itzuli du bere tokira; barrara. Hori ere erabilgarri, eta erabilia.

Harriduraz galdetu diet ea zer egin duten bi kazeta horiek barraren ertzean, gaztetxe batean, ez nagoela horrelakoak ikustera ohitua; eta beraiek oraindik eta harrituago erantzun didate arraroa al den bada. Igual ni nabil oker, baina nire esperientzian behintzat ez da egunerokoa horrelako gune batean ARGIA astekaria topatzea.

Asanbladan hartutako erabakia da. Gazteen eguneroko biltoki da Gaztetxea, eta egunerokoan irakurtzeko zerbaite izan nahi zuten bertan. Euskaraz,

baldintza. Eta baldintza soilik ez, aukeren murriztea ere bai. Egunkari bat bai behintzat, beraz, *Berria*; eta edukiak sakonago landuko dituen aldizkariren bat ere bai... Hortik ARGIAko harpidetza egitearen hautua. Zergatik, ordea, ARGIA? Baten erantzuna: hau Xabier Letonaren artikuluen fans-a da! Barre algaraka. Bakoitzak bere gustuen arabera irakurtzen ditu, baina topatu dute beren lekutxoak ARGIAN.

Gazte Asanblada ez da gune autogestionatuaren erabilzaile bakarra. Emakume talde bat ere badabil gaztetxean, eta hauek ere badute harpidetza esanguratsurik. *Pikara Magazine* aldizkaria begiztatu dut beste txoko batean, eta emakume talde honek eskatuta iristen omen da.

Harpidetzak ere aukeratu egiten dira, modu kontziente batean, eta garenaren zerbaite ere erakutsi dezakete gure mahai-gainetan egoten diren egunkari eta aldizkariak. Antixenan egin dute hautua. ■

“Sorlekutik urrun bizitako urteotan beti izan dut ondoan, sorlekuaren berri jasotzeaz gain Euskal Herri osoko gaiak gozotasunez jarraitzeko parada eskaintzen zidalako, eta horrez gain, euskaraz, edozein gairi buruz hitz egin daitekeen froga argia delako”

Jon Garmendia Txuriya,
ARGIAkoa

Txioak, Kataluniatik



ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.